

«Angeru ona; ez, ez beldurtu...

musu aundi bat ekartzu...

Lartan xamur ta muxu beroa...

Tori zuri pa gozoa...

Pinpillinpauxa polit, ariña...

Zu bai, zu, nere erregiña!».



OLERKARIAREN GUNA

A. ONAINDIA

Ez da gai oneri buruz idaztea, nekerik bako lana. Naikoa idatzi dabe, literatura guztietan, onen barrua zelanbaist aztertu ta alik argien adierazo nairik. Baiña, alegiñak alegin, beti geratzen yaku zerbait adierazo zailla, azaldu eziña, edozein ikerlan naiz estudiantan gertatu oi yakunez. Zer askoren osin sakoneraiño, nor eldu? Pilosopuen arazoa, gauzak zergaitik diran, sakonetik ikasi ta ezagutzea dala, badakizu; baita gaurko prantses jakinlari gazte Marx'en aurkakoena be.

Olerkia esitzean, au esan oi da: «Itz jantziz apaindu ta adierazten dan artea». Zer esan nai dausku onek? Itz-jokoa erti naiz arte al dogu? Nun diran onen ezaugarri ta zantzuak? Bai, ba-dozu ezaugarririk; poesi bat irakurri ondoren, zeuk autortu zeinke: au atsegin yat, a bestea ez. Bai al dakizu zergaitik dan? Bear bada ez, ez dakizu; zek irakurri egin dozu, ta ederra iruditu yatzu, pozik itxi zaitu; zeu kontuan jausi barik, adierazo ezin-alako zauskada samurra sortu yatzu, or izate barruan. Ez ete?

Orain irakur beste bat gai bardin samarrekoa: mendiko atsedena naiz langille baten zoria. Onek ez dautzu ezer esan, ezta arek be. Eta, jakiña, azalez, itz-jantziz ondo txukunduak dituzu, ez dabe akatirik, ez betegarririk. Orduan, zek ez zaitu bete? Egilleak, zeure ariko

ez dalako, ala itz-joskerak? Barruko ritmurik ezak, beroezak bear bada? Dalakoa dala, or zerbait palta da, ta olerki orrek ez dau zure barrua asetzen, ez diñotzu ezer. Ez yatzu atsegin, ez gogoko.

Itzen adierazte ortan daukazu korapilloa, askatu bear dana. Zerbait jantzi daroagu itz-soiñekoz. Zer? Gogaiak, pentsamentuak, biotz-zauskadak, sentipenak... Or aurrean zerbait ipiñi bear, ez edozelan, «aurkez» baiño; ez aurrez aurre, baiña bego «ortxe», azal ta barru, poesi-lanean dardarati.

Olerki bi doguz irakur-barriak. Onek ez gaitu ase ta besteak bai. Zer dala-ta? Idazleak ez dau beretzat soilki idazten, irakurlearentzat izan oi da geien bat idazten dana. Beraz, idazten danarekin —dala olerkia, dala prosako lana— irakurlea be erdikide egin nai dau, barruan daroanaren barri emon gura dautso; bai, irakurleari jakin-erazo, iragarri, irakurlea bere arnasaz kutsutu, artu-emonean ipiñi. Labur: besteai, irakurleai, bere artean, bere baitan daroana ta asmotan darabilena, adierazo.

Ar-emonean sartu ta besteak erdikide egin nai orretan, alan be, maillak dagoz, obeto, daukaguz. Besteai emote ortan, batak emon dagi ozta-oztan, zerbait adierazo, itzen joskeraz eta jantziz barruko zer-edo-zer eskiñi; besteak, ostera, arnasa jarri dau ortan, bizia, beroa emon dautso, barru ta azal, legarrak oreari lez, poesizko lan osoari: mamifetik jalgi dan arnasaren galda. Lenengoarena irakurterakoan, itz-adierazpenaren zerbait, itzen bestekaldian ain zuzen, izkuntzak esan nai izan dauskunaren zentzuna billatu ta jakin nai dogu; bigarrenarenean, barriz, berez-berez yatorku esan-naiaaren beroa, ekaitz ondorean lur mamorrak damoskun lurrun ixuria lakoxea.

Laburki: erdikide egite ta izate ortan, lenegoan izan daiteke beste era batera be, mamifia beste modu batean azalduaz; bigarrenen, doi-doi, barne-mamin eta itz joko zuzen zeatzean emona bait-da, orretatik ezin daikegu ezertxo ez kendu ez aldatu. Idazten darabildan tramantzera, otioztari ekingo. Mendizale dogu Lizardi, ta eleiz barruan dagoelarik be, mendia datorkio gogora, Urkizu, Txindoki ta abar, illura utsetan. Olerkariak kanta:

Ona, esaterako aapaldi (estrofa) bi, bata Lizardi'rena ta Sataka'rena bestea. Irakur egizuz eta zeuk igarriko, laster asko, batak bestera dagoan alde.

Lizardi'k:

«Jaunarenean nago
begiak ezin bil,
elizaren sabela
bakar dago ta ixil.

Otoitzerako giro,
baña ni txoratil...
Leiotik ari xea;
egun berria aril».

Sakarta'k:

«Gaurtik aurrera egin dezala
maiz eudi ta kaskabarra...
Tximist-ozantzak, aize aundia...
Ekaitz ikaragarria...
Ez dedilla irten euzki gorria,
argitzera illunaldia...».

Biak dituzu aapaldi eder, bata zein bestea; baiña somatzen al dozu batak eta besteak daben ederraren diferentzia? Lizardi'k bere lanari «Egamin» ipiñi dautso izenburu; Satarka'k, «Amaren negar marraskak». Lizardi'k zortziko txikian, 7-6, diardu, neurri, puntu ta oskide-tza (rima) oso politez. Gozoa neurtitzaren guna, barne-adierazpena: eleiz sabelean, barruan dago koplaria; eleiza bakar dago ta ixil, otioitzerako beraz giro egoki-egokia. Goiza da, larrosazko egun-antza, esango leuke Omer'ek; eleizearen goikaldeko leio pitifetatik ari mee xea, argi-printzez astun, jauretxe barruraino dator pizkaka. Otioizlaria, alan be, o gure zentzun biurriak!, begiak ezin batuta, txoratil dago. Egamin arima, ta zentzunak ez izten! Gorantza egin nai, ta ezin zapaltzen! Gizonarekiko bi burruka. Gogoak gura dauanari aragiak ez dautso erantzuten.

Irakur egizu bigarrenez be zati berbera. Poz zaitez gure olerkari bikaiñenaren lan panpotsez. Bederatzi aapaldi poema lerdan, irezka onek. Zentzunen eragiñez, egamin eta geldimin aldi berean dala, leialdea dakus, iduriz, bere gela berrenean ikasi ta ikasi. Berak be, aren antzera, otioztari ekingo. Mendizale dogu Lizardi, ta eleiz barruan dagoelarik be, mendia datorkio gogora, Urkizu, Txindoki ta abar, illura utsetan. Olerkariak kanta:

«Etxeak mendiaren
bixkar-bixkarrean,
usoak dirudite
teillatu ertzean,

urruma ta jolasa
elkarren artean,
soin zuriak nabari
zeru gardenean!»

Ondarribi'ko poeta errimearen lanak amalka aspaldi dituz, zoz-
tziko nagusitan, 5/5, 5/3, onduak. Alaba «alingeru xamur, eder, do-
lita» il yakon amaren negar-marraskak abesten daukuz aitzuriko
lanean. Amak ez eban uste alabea ilgo yakonik; orindirio be lo dagoela
begitantzen yako, ta urrazko izar bi diran begiak zabalitzeko eskatzen
dautso, ama-biotzak dauan samurtasunez: «Ta irri-per egin, izan
txikia, nere aur txoragarria».

Irugarren aspaldiak onela:

«Alingeru ona: ez, ez beldurto...
Muxu aundi bat ekartzu...
Laztan xamur ta muxu beroa...
Torri zuri pa gozoa...
Pimpilipeuxa polit, arifa,
zu bai, zu, nere erregifala»

Orrelaxe doaz, ibai ura iduri, geliferako aspaldiak be, ari ta ut-
tuz, mamifiz ta itzez, ondar gorrian itera luzatu oi diran dolo
zabal apertsuak bai litzaz. Guna ez da berezi-berezia, sarritako zehar
beliko: maite eban alaba il yakon amaren negar-zotifikak, olerkari zen
nak literature guztietan abestu izan daberi gai arrunta, bear bada.
«Zu lore, izar ta illergial Erdibitu da nere biotza: barruan dei nep-
otza...» Irudikizun arruntak, sarritakoak, difikozu, euri-jasa ostean
ereifotz ostora lez, lumaren puntara berez-berez datozan lanak
nunbelt.

Alan be, niretzat eder diran olerkari bion artean be-de alderi-
be-de diferentziarik. Biak daragoioe gizonki, azal ta berruko neurri
borobilletan; lanaren betea jantziz ta mamifiz bikain dabe bi-
biak zalantzarik bage. Irakur osorik poesi atsegingarri biok (Milla eskal
Olerki eder, lenengoa 888 gr. orrialdean eta bigarrena 807 gerretan,
eta zeuk esan, biotatik zein dan barne-zimara obaz zauskatzen ar-
tuna; zeifiek dirhotzun gelago, zeifii deritxazun jatorrage.

Ondoren bezela, zertan ete dago errez somatzen dogun aile-
diferentzi ori? Itz labur: gunera jo ezketifio, niretzat ondar beifio
bein: poesi-lanak kantetako naiz irakurteko landu daroguz, ez po-
fiera geuk irakurri ta ixil-zulo eukiteko, beste batzuk be, ez ir-
irakurleak erdikide egiteko baiño: askok irakurri dagitela gure lan-
or bizirol nai doguna. Idazlanek aurki, egillearen anime bear dau ber-
arietan dardaka; ari dardara ori izan daiteke batzuetan beste en-

alderi be, ete beste batzuetan ezelan bere ez: esan bezelaxe ta kitu,
irakurlearen bete-betean dago-ta, Onen mamifia esan eta adierazo gein-
ta beste modu batera, ez ostera arena; onena itzuli daitegu ta beste
modura batera adierazo: arena, barriz, itzuli ezifia da, doitasun zeatz
adierazten landua: ez gelago ta ez gitxiago, Asi zaite, adibidez, Li-
lenengoa lenengo aspaldi, naiz beste edozein, beste tankera batean
adierazten eta bear bada zirimarra ta txingote bat dokeru, egillea-
ren aldetik burutu doguna. Sararka'rena ba leiteke beste modu ba-
re be errezago naiz txairoago, adierazo al izatea.

Zek egiten ete dau ori? Ba al dakizu? Nire eritxiz, gogai ta biotz-
molekuler egokitasunak, eta itzen joste ta albalifan jarte doi-doiak,
Orri jagi oi da guk askatu nai geunkean eskutu ta misterio aundia,
ets mundiko errazoiak eta moduz itzen adierazpen bat beste era ba-
re esan geinkean kasu onetan, olerki onetan, esaterako, ta bestean
ez. Niri dotta onen korepilloe?

Zein ontan zer bat daukagu: besteak be, ots, irakurleak zatikide
buru geuk berne-doragunaz jabe egin daitezala irakurleak naiz
geureak; artu dagiela parte geure-geure dogun zer orretan. Ona
jarkari bi, Orixe ta Aresti, adibidez. Parte artze orretan batak dei
egin oi dauku, egilleak bere lana burutzerakotan, oldoztu ta ezagutu
dauan guk be ausartu, ezagutu ta geuretu dagigun; besteak, ostera,
jarkari somatu ta bizi izan dana guk be somatu, sentidu ta bizi
tan dagula, nai dau; batak, guk oldozkun sail batean idazleari la-
gundu ta jarraitzea opa dau, besteak poema egikeran olerkariak berak
tan dauen barne-jardunaz, giza-gogaldiaz gu be oartu ta jabetzea,
berigintzan eukitako barne-jokoaz, oldozkunez eta dardaraz, ain
zein be.

Ez au bertsoaren barne-igikera (ritmu) ta ots-estitik (melo-
dika) sortzen da. Entzun oni buruz M. Lekuona'k dikoakuna. «Rit-
moa —dantzen dau—, «ibilliarren egokitasuna» esan zaion «zerbait»
ta ibilliarren egokitasuna —ibilli egokia—, ibilli egokia dantzan,
berdin esan bait liteke, dantzaz ezik, soñuaz ere: «Soñu egokia»,
soñuaren egokitasuna...» Berdin esan liteke, balta, itzaren ixuria-
ren egokitasuna. Gure itza, gure izketa, itz-jario bat da, itz-ixuri bat. Itz-
jario itz-ixuri orri —soñuzko ixuriari bezela— «ritmoa» esaten dio-
ritmoa sentitzeko, ritmoaren ederra txastatzeko, az-gozatzeko, Mundu
er, mundu aundi bat da, ritmoaren mundua. Or sartzen da Dantza.

or sartzen da Musika (Musikaren, Melodiaren oin-jokua). Or sartzen da Olerkia, Olerkiaren, Bertsoaren ixuri egokia» (Aozko Literatura, 164 orrialdean). Onetzaz, urrengo baten geiago.

Eta azkenik, erakusburutzat, ona antz-irudi batzuk. Igiera —pentsamentu ta itzen barne-eragin bizi, leuna— ta, olerkian batez be, aitaturako melodia azaltzeko, irudikizun batzuk jarrea izango yaku egoki ta trebeen.

Lira-jotzaille batek, esaterako, bere jogailua neurrira ekarri ta gozatu egin oi dau aurrena; orobat gure tanbolin eta atabal jotzailleak be. Liran, ondoren, doiñu leunak eta zorrotzak astunakaz eta erdikoakaz nastatzen ditu, ta askotako doiñu orreitatik melodi ta ereskidetasun gozo atsegiña sortzen da.

Bardintsu abesbatz baten be: kantariak asko dira, gizon, emakume, ume, gazte ta zaar; bakotxak dau bere abotsa; koru-maixuak zaindu ta bateratu oi dauz abots ezbaridiñok, eta bakotxak bere arian jardun arren, gizon elduak gizon eldu lez, andrazkoak andrazko lez eta umeak ume lez, maixuaren neur-zotzaren mendean, eresbatz osoak, kantu ta melodi atsegin-atsegiña burutu oi dabe.

Atal askoduna dozu gure gorputza, gure arimeak bere-bereak ditun indar kemenez darabilena; atal bakotxak bere arazoa dau, ta begiak ikusi dagie, belarriak entzun, suurrak usaindatu, eskuak ikutu, gozamenak ao-gozatu; orrelaxe beste soin-zatiak be, oiñak ibilli, urdaillak eio, birikiak arnas-artu, ta abar. Guztien artean giza-soiña dagie, ta gizon osoa atan be, arimeak bere ezpiritu-kemenez ba'darabil zertan esanik bere ez.

Iru antz-irudi oneitan atal ta zati askogaz egindako zer oso bat daukagu. Era berean so-egin geinkeo osotasunari poesi-lan batean be. Or dogu poema bat, gure soiña lez, oso ta egoki egiña, arnasa biziz ase ta mordindua. Or olerkiaren guna, egiazkoa. Orrelaxe jokatu bear bere burua olerkaritzat daukan olerkariak.

AITA ONAINDIA

ALDIZKARI AU
ARTU NAI NUKE
KARMEL

NERE ZUZENBIDEA

Izena _____

Deitura _____

Erria _____

Probintzia _____

